BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3610

EBAZPENA, 2011ko ekainaren 21ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2011. urtean enpresei eta entitate pribatuei diru-laguntzak emateko eta ukatzeko dena. Diru-laguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin ditzaten.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2010eko abenduaren 15eko Ebazpenaren bidez, 2011. urtean enpresei eta entitate pribatuei diru-laguntzak emateko deialdia egin zen (2010eko abenduaren 31ko EHAA, 251. zk.). Diru-laguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko emango dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin ditzaten.

Ebazpen horren 12.1 artikuluak ezartzen duenez, eskabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen batez ebatziko dira, horretarako izendatutako Hautaketa Batzordeak proposatuta. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

Artikulu horren 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera, laguntzak emateko ebazpen honetan zehazten dira diru-laguntza eman eta ukatu zaien enpresak eta entitateak, izendatu zaizkien diru-zenbatekoak eta, onuradunen batek uko eginez gero, ordezko izango diren entitateak.

Adierazitakoagatik, Hautaketa Batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Ebazpen honen I. eranskinean dauden enpresa eta entitate pribatuei diru-laguntzak ematea, bakoitzari izendatu zaion diru-zenbatekoaz. Guztira, laurogeita hamasei mila euro eman dira (96.000).

Bigarrena.- Ebazpen honen II. eranskinean aipatzen diren enpresa eta entitate pribatuak ordezko izendatzea. Gehienez ere jaso lezaketen zenbatekoa ere zehazten da.

Hirugarrena.- Ebazpen honen III. eranskinean aipatzen diren enpresa eta entitate pribatuei diru-laguntzak ukatzea, ukapenaren arrazoia esanez.

Laugarrena.- Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea.

Bosgarrena.- Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hil biko epean, ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Hala agintzen da uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 artikuluan eta 46. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa).

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 21a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

I. ERANSKINA

ENPRESA ETA ENTITATE ONURADUNEN ZERRENDA

Esp. zk.	Eskatzailea	Subentzioaren zenbatekoa (eurotan)
2011/09 SE	Bellota Agrisolutions SLU	10.000
2011/23 SE	Asociación Lanberri Empleo Joven para la Promoción Social de Bilbao	6.885
2011/16 SE	Konfia Servicios de Conciliación SL	5.195
2011/21 SE	Asociación de Desarrollo Comunitario Gazteleku	8.500
2011/20 SE	Askora Plus SL	9.000
2011/17 SE	Bera Bera Rugby Taldea	5.525
2011/19 SE	CTL-TH Engineering SL Unipersonal	3.250
2011/26 SE	Goitu Eraikuntzak SL	7.500
2011/08 SE	Rezikleta S. Coop. de Iniciativa Social	4.250
2011/11 SE	Premank Servicio dePrevención Ajeno SL	6.500
2011/10 SE	Club Deportivo Fortuna	5.525
2011/24 SE	Servicios Auxiliares de Gestión de Negocio SA	8.000
2011/12 SE	Socosevi Servicios SL	5.750
2011/14 SE	Asociación de Esclerosis Múltiple de Bizkai- Adembi	7.150
2011/15 SE	Fundación Bizitzen-Bizitzen Fundazioa	2.970
Guztira		96.000

II. ERANSKINA

ENPRESA ETA ENTITATE ORDEZKOEN ZERRENDA

Esp. zk.	Eskatzailea	Gehieneko diru-kopurua (eurotan)
2011/07 SE	Ekiber S. Coop.	3.500
2011/25 SE	Asociación de Ayuda en Carretera DYA en Gipuzkoa	8.500
2011/18 SE	CTL-TH Packaging SL Unipersonal	4.250
2011/04 SE	Elhuyar Fundazioa	8.500
2011/22 SE	Fundación Tutelar Gorabide	7.820
2011/02 SE	ATE Informática SA	3.945
2011/03 SE	Eleka Ingenieritza Linguistikoa SL	4.290
2011/06 SE	Club Atlético San Sebastián	5.525
2011/05 SE	Real Club de Tenis de San Sebastián	7.173

III. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAK UKATU ZAIEN ENPRESAK ETA ENTITATEAK

Esp. zk.	Eskatzailea	Ukapen arrazoia
2011/13 SE	Fundación Fondo Formación	Gutxieneko puntuazioa ez du lortu
2011/01 SE	Aguas Municipales de Vitoria-Gasteiz, S.A.	Ez dago deialdiaren xedearen baitan